

- Koloneko minbizia tumorerik ohikoenetako bat da Nafarroan
- Garaiz detektatzen bada, kasuen %90etik gora senda daitezke
- Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programak tumorea garaiz diagnostikatzeko proba erraz bat egiteko aukera ematen du
- Programa zure bizioki-barrutira iristen denean, 50-69 urte bitarte baduzu, gutun pertsonalizatua jasoko duzu
- Kasu egin gonbidapenari
Test bat aski izan daiteke zure bizia salbatzeko

HAUTA90 KOLONEKO MINBIZIA GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

Argibideak

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programa

Francisco Bergamín 2 bis. 31003 Iruña

Tfno 848 42 34 98

precolon@navarra.es
www.cancercolon.navarra.es

LG NA - 2833/2017

HAUTA90 KOLONEKO MINBIZIA GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

www.cancercolon.navarra.es

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



HAUTA90
KOLONEKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO
PROGRAMA

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



Zer da?

Polipo izeneko lesio baten ondorioz heste lodian edo ondestean sortzen den **tumore gaiztoa** da.

Maiz agertzen da?

Nafarroan, tumorerik ohikoeneako bat da. Emakumeen artean bigarrena da, bularreko minbiziaren ondotik, baita gizonen artean ere, prostatako minbiziaren ondotik. Emakumezkoen artean heriotzarik gehien sortzen duena da.

Ohikoagoa da familiar koloneko edo ondesteko minbiziaren aurrekariak dituztenen artean, bai eta hesteen hanturagatiko eritasun kronikoak edo polipoak dituztenen artean ere.

Egoera horiek gorabehera, 50 urtetik aitzina arriskua handitzen da.

Zein dira sintomak?

Hasierako faseetan ez da sintomariak izaten, oro har, baina sintoma susmagarritzat jo behar dira kakarekin batera odola botatzea, hesteek ohi bezala ez funtzionatzea eta arrazoirik gabe mehetzea.

Badago prebenitzeko modurik?

Minbizia izateko arriskua txikiagoa da fruta eta barazki asko eta animalia-jatorriko gantz gutxi kontsumitzen bada, eta ariketa fisikoa egiteko oihura badago. Horretaz gainera, komeni da gehiegizko pisua eta obesitatea saihestea eta tabakorik eta alkoholik ez kontsumitzea.

Badago sendatzeko aukerarik?

Garaiz harrapatz geru, errazagoa da tratatza eta sendatzeko aukerak handitzen dira. **Diagnostiko goiziarreko** kasuen **%90etik gora senda daitezke**. **Fase aurreratuetan** diagnostikatzen bada, ordea, biziak aukerak **%50 baino gutxiagora murrizten** dira.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak **Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programa** jarri zuen abian duela urte batzuk, eta eritasuna garaiz detektatzeko proba dohanik egiteko aukera ematen du.

KOLONEKO MINBIZIA GARAIZ DETEKTATZKO PROGRAMA

Norentzat da?

Nafarroan bizi diren **50-69 urte arteko** gizon-emakume asintomatiko guztientzat.

Hitzordurik eskatu behar al da?

Ez. Programa zu bizi zaren eskualdera edo osasun etxera iristen denean, **gonbidapen pertsonalizatua** hartuko duzu zure etxeen.

Itxoin gonbidapen-gutuna iritsi arte. Programan sartzen diren pertsona guztien azterketa bermatzeko modu bakarra da. Dena dela, edozein unetan anomaliarik nabaritzen baduzu, esan zure medikuari, arren, ahalik eta lasterren.

Datozen urteotarako **egutegia** hemen ikus dezakezu: www.cancercolon.navarra.es



Nolakoa da testa?

Kaketan **odolik ote den ikusteko** proba da, ez baita begi hutsez ikusten. Oro har, bi urtetik behin eginen da.

Zure etxera igorriko dizugun gonbidapenarekin batera, beharrezko materiala jasoko duzu, lagina hartzeko jarraibideekin batera. Bete ondotik, **zure osasun-etxeen utzi beharko duzu, ahalik eta lasterren**. Egun batzuen buruan jasoko duzu emaitza.



Zer adierazten du proba positiboak?

Kalkuluen arabera, proba egiten duten 1.000 pertsonatik 50 inguruk positiboa emanen du, baina 2k baizik ez du minbizirik izanen. 5 positibotik 1ean, kaketako odola polipo onberen ondorio izanen da, eta horiek ere tratatu beharko dira etorkizunean minbizirik ez izateko.

Odola nondik datorren jakiteko, **kolonoskopía** bat egin beharko da. Kolonospia heste barneko azterketa da, sedazio bidez egiten dena minik ez egiteko. Hari esker, odoljarioa eragin duten lesioak ikusi, detektatu eta kentzen ahalko dira.

Diagnostiko eta tratamendu goiztiarrak pronostikoa hobetzen du, bai eta handitu ere eritasuna sendatu eta kontrolatzeko aukerak.